


Argibideak.

Nola iritsi Albaola museora?

2020ko uda honetan, Albaolako bisita itsasontzi batean hasiko da! Behin Albaola bisitatzeko hitzordua hartuta, itsasontzia Trintxerpen hartuko da, Pasaia badiaren zeharkatuko da eta museoan bertan utziko dira bisitariak. Iristeko modu bakarra da, izan ere oinez iristeko bidea aldi baterako itxita dago.

Non hartzen da itsasontzia?

Trintxerpeko "muelle del Hospitalillo" n (Azti Tecnaliaren eraikinaren aurrean). Orduetgia erreserba egiterakoan emango da. (Ikus argazkia).



Nola iritsi autoz?

AP8/GI-20: Pasai San Pedrorako 5. irteera. Trintxerpeko doako aparkalekuan aparkatu.

Nola iritsi autobusez?

DONOSTIATIK: EKIALDEBUS E09 autobusa San Pedrorako noranzkoan. Irteera Donostiako Okendo kalean eta "Trintxerpe" geralekuan, Euskadi Etorbidean (Azoka), kaiaren ondoan.

EKIALDEBUSEKO GAINERAKO LINEETATIK (Hondarribia E27, Irun E26, Oiartzun E02, Beraun E05, Donibane E01) "Escalerillas" geltokian jaitsi. Hortik, eskailerak jaitsi eta kaian agertzen zara zuzenean.

Nola iritsi trenez?

RENFEko aldiriko trena (IRUN-SS-Zumarraga linea) eta EUSKOTREN konpainia (Hendaia-Donostia linea) "Herrera" izeneko geltokian jaitsi eta oinez joan 5 minutuz "muelle del Hospitalillo".